· ERRETORTAJEA TRINITATEAK ARGAZKITAN · GEHIGARRIA KILIBARREN
· KULTURA GUREAN BAI HITZARMENAREN BIGARREN FASEKO BALORAZIOA

# BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2002ko maiatzaren 31a/X. urtea/407. zkia



# Lehen Dirtsurf Bilketa Elgoibarren


rELGOIBAR B.H. Institutua
2002/2003
Arregitorn3, 2
TeL 943 74 80 19
Faxa. 943 74 82 30
E-posta: bulegoa@elgotbanheirteknet
ERDIMARAKOHEZKUNTZ ZIKLOAK (Aeta D eredua)
Merkataritza
Ibilgoiluen Elektromekanika
Karrozeria
Erizaintza Laguntza Osagarriak
GOIMAHAKOHE/KUNTIZIKLOAK Deredua)
Administrazioa eta Finantzak
Automozioa
Ingurugiro Osasuna
AENOR
AURREMAIRIKUIA EPEA: ekainaren 3tik 12ra arte
600 ikade inguru beruien etorkizuna jorraizen • 45 ikasgairen eskairdza. Ikasle bakoitzak bere bidea aukera dezan • Azpiegitura teknologiko aurreratuena. Etorkizunerako prestakuntza ziurtatuz • ISO 9002 kalitate ziurtagiria. Prozedura garden eta kontrolatuak « 80 lizentziatu, ingeniari edo diplornatu. Unibertsitate eta goi mailako zikloetarako prestakuntza zuzena •
Selelctibitateko emaitza ezin hobeak.


ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA
San Frantzisko, 43 -1. solairua
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR
ordutegi berria
1 0:00etatik-1 2:30era
1 5:00etatik-20:30era
Ego Gain, 4 behea
(San Andres pasealekutik)
Tel, 943 203 455 20600 EIBAR

besteak-beste.



## Mamo Wolde

Mamo Wolde nazioarteko atleta ezaguna igandean zendu zen 71 urterekin.

Etiopiako atleta hau E]goibarko krosseko jarraitzaileen artean oso famatua eta maitatua izan zen, 1963, 1964 eta 1967. urteetan Memorial Mugerza Krosseko irabazle suertatu baitzen.

Ezagutu zuten pertsonek oso jatorra eta maitakorra zela adierazi dute, batez ere umeekin.

Baina Wolderen bizia ez zen batere erraza izan. 1974. urtean atletismoa utzi eta bere militar lanari ekin zion. Urte batzuk beranduago 14 pertsonen hilketa leporatu zioten. Nahiz eta bere aurkako probarik eduki ez, bederatzi urtez gartzelaratu zuten. Orain dela lau hilabete askatua izan zen eta pobrezia ikaragarrian bizi izandu da bere heriotza arte.

Hemendik, omenaldi txiki bat egin nahi diot nere gurasoek eta beste herritar anitzek hainbeste mirestu zuten atleta bikain honi.

Mireia Garrido



## Lex-Pax

Inperioko estrategek, beraien plangintzan beste pauso bat eman dute, Euskal Herria suntsituko dutelakoan, koittaduak. Egoera hau ez da berria. Euskaldunoi beti bortxaz ukatu dizkigute herri eskubideak, gu geu izatea, BURUJABE izatea, geure herria gure esku izatea.

Mendeak joan, mendeak etorri, ez dute inolako lotsa eta erreparorik izan beste sasoi batetako legeei aurpegia garbituz itxura hobea izan dezaten, horrek kiratsa estaltzen duelakoan edo, bost axola izan dien moduan beraiek eginiko legeekin komuneko papera bilakatzea tripetatik estututa dabiltzanean, edo lege berriak erditu beraiei gehien komeni zaiena egin ahal izateko. Honi demokrazia deitzen diote.

Orain lege berri bat asmatu dute, beraien legeak guretzat ez direla gogorarazteko eta beraiek direla hemen gure jabe. Ahaztu egiten zaie, ordea, gu beti egon garela beraien legeetatik at, lege atzerritarrak izateaz gain, inposaturikoak direlako, eta sekula ez ditugu ametituko; beraz, egin dezatela nahi dutena, guk gurearekin jarraituko baitugu.

Azken ttuttumuttuek diotenez, hurrena debekatzen Agur Jaunak kanta izango da, eskusoinu irakasleak ez omen ditu-eta notak asmatzen.

**"Euskaldunoi beti bortxaz ukatu dizkigute berri eskubideak, gu geu izatea"**

Nestor Fuente

Kexak .................................................. 5
MOtZ MOtZ .................................................. 8
gehigarria .................................................. 13
kiROlAk ..................................................
aGenda .................................................. 14

# Urruzunoren begi ezkutua

## Atzerritarra



Egoera modukoa zen eguraldia, heltza. Atertu gabe zeramatzan bi, hiru aste, amorruz orain, indartsu bestela. Eguerdirako ilun zen, argiak zirrikiturik ezin topa, hezetasuna zerien baserriei, mendiei. Soroak antzutuak, hondatuak fnlitondoak.

Nahasmena abiadura beraz iragazten zen. Lasaitasuna ez beste edozer sortzen zuen mututasuna eta gelditasuna metatzen ziren egunez. Gauez, euriaren ozenean itotzen ez baziren, ihesi doan jendearen gurdiak eta pauso klandestinoak entzun zitezkeen, bide lokaztuetatik, erreka ibarretatik, Karakate eta Irukurutzetako magaletatik. Gerra hotsak ziren han-hemen, gosea nonahi.

Mahaiaren inguruan, kezka da nagusi amona, aita, ama eta seme-alaben aurpegietan. Lurrak eman, fraide-etxe eta komentuek jaso eta gudak ostu dezakeena ez ei dira aski emigrazioaren atea ixteko. Nora darama baina alde egin behar mingarri honek? Zer inguru berri, zein jende arrotz zain? Zein bizimodu eta zer harrera norbere lurretatik kanpo?

**Mikel Artola**

## MILA ESKER ELGOIBAR

Eskutitz honen bitartez, larunbat eta igandean lagundu zeniguten guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu. Eta Zigorri animoak, entrenamenduetan istripua izan zuen eta berehala sendatzea nahi dugulako, Inor ez ahazteko gogoarekin, mila esker kartelean agertzen zareten guztioi, zuen dirulaguntzarik gabe ezinezkoa izango zen-eta, proba hau aurrera ateratzea, Eskerrak baita ere irratiekin edo banderinekin edo kronometroekin egon zaretenoi, istripu larririk ez egotea lortu duzuelako. Mila esker Gurutze Gorrikoei kolpe eta zauriak hain laster sendatzeagatik. Eskerrik asko Robertori bere kamioia uzteagatik. Baserritarrei ere eskerrak eman nahi dizkiegu beren pazientziarengatik. Bideoak eta argazkiak atera dituzuen guztioi ere mila esker. Mila esker kartelak hainbat herritan jarri dituzuenoi ere, eta nola ez Kurutzeta tabernakoei gurekin hain ondo portatzeagatik. Amaitzeko, mila esker bihotz-bihotzez gure familiakoei, anaiak, arrebak, koinatuak, emazteak etb. Beraien laguntza, eta animoarengatik. Mila esker, Elgoibar.

Devilsurfen izenean,
**Kurutz Castrillejo**

## ESKERRIK ASKO

Nagusien tanborradako antolakuntzatik honakoak eskertu nahi ditugu eskaini diguten laguntzarengatik: Udaleko kultura saila, Musika Banda, Brigada, Udaltzaingoa, Pilar Ikastetxea, Ikastola, Gorosabel Elektrizitatea, Rafa Alkorta eta Ramon Iraeta. Besterik gabe, datorren urtean ere tanbor hotsak herrian izan ditzagun saiatuko gara.

**A.A.**
15.397.154-B

BARRENek ez do Lere gnn heizen e'a ESKUTITZAK erozi!akcen eren'zil .0 Ez chozv da u kauek izen.obizenak, NAN teWono zki

ASTEKARIA
BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
xo 943 74 41 12
Publizitatea:
Ir 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren @topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.comfbarren
ARGITARATZAILEA
ElgOtarllO IZarra

LAGENTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDAMA Jon Iñaki Lasa KAZETARIAK Iran Agirreazaldegt. Asier Orbea PUBLESTATEA Amaia Erkiaa MAKETATZAILEA Iker Diego ADIENISTRAZIOA Amaia Rodrigez GERENTZIA Jon Peli Uriguen AOLASORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainboa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendzabal, Juan M. Ebstondo, Alberto Ansualegi, Edurne abao, Gotzon Antela, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinet, Monlse Arregi, Juanito Gorostiza, Ainboa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno LI.AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garaleren 5burulit IIIPMIAATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.025 RIE LESE OORDAILUA 85-1.038/52 ISSN 1139-1855

ELG0IBARK0 IZARIA

Elgoibarko Udalak, Easka Jaarlaritzako Kaliura Sailak ela Foru Akhardiak dintz lagundutako aldizkaria.

kutxa
1DANOBAT YAQUIHAS MERNAMI(NTA
5,' G 01 T 1 GRUPO 0111.178/11
ESTARTA

## KEXAK



• Urasandira igotzeko sarreran kanaloi bat dago. Oso arriskutsua da txirrindulari eta motorrentzako batez ere. Behin baino gehiagotan erori naiz nahiz eta poliki joan. Porlana oso fin dago eta izotz pista dirudi eta gainera beti dago bustita.



• Trinitate jaietako azokaren ostean plaza txikia zikin geratu zen. Autoak aparkatzeko astelehenerako garbitu arren dena ez zen behar bezala geratu, arkupeetan zikinkeria ugari geratu baitzen. Arkupe hauetan jende asko ibiltze.n da ( haurrak, ikasleak.,.) Asteartean oraindik, zikin arrastoak zeuden. Autoek pertsonek baino tratu hobea merezi al dute?



-44 • Sigmako auzoan plazoletatik atari batzuetara igotzeko eskailera pila bat dago eta baranda bakarra. Gainera, ikusten den bezala, zuhaiskarekin estalita. Noizko behar bezalako baranda eskailararen alde bietan?

## TXALOAK

• Trinitateetako azokaren antolatzaileei txaloak. Herriko nekazal produktu eta animaliekin egin zen azoka eta giroa zoragarria izan zen. Benetan ikusgarria izan zen, zorionak.



MA I ATZAW18, ZAPATUA

## ZEZENKETA

**HobE zEzEnen adarrEtatik ihes EgitEa**







MIPMIWZAK 18, ZAPATUA

## DIRTSURF

## TXAPELKETA

**Aurtengo nobedadEa**



MAIATZAK 25, ZAPATUA

## AZOKA

**FEria onEan gauzak ondo saltzen dira**















# itan 2002

## KUKUBILTXO
MAIATZAK 26, DOMEKIA



MAIATZAK 25, ZAPATUA

## XAKE
TXAPELKETA

PaziEntzia, zortzigarrEn sakramentua



## ARTISAU AZOKA
MAIATZAK 26, DOMEKIA

BEsteEn EskuEkin ez da uztarik biltzEn





MAIXTZAK irtAPATUA

## HELDUEN TANBORRADA

Danbor hots handiak





## UMEEN TANBORRADA

Ez da handirik txikirik gabE



MAIATZAK 26, DOMEKIA



MAIATZAK 25, ZAPATUA

## DANTZA

Dantzaria Ezin gEldi Egon





# Anbulantzia medikalizatu berria eta gurpildun aulkientzat egokitutako ibilgailua ditu Gurutze Gorriak

## Elgoibarko anbulantzia medikalizatua Osakidetzako larrialdi sarean sartuta dago

Elgoibarko Gurutze Gorriak anbulantzia berria ekarri du. Izan ere, 7 urtez gaisoak eraman eta ekartzen ibili ostean, aurreko ibilgailua erretiratu beharra izan dute. Anbulantziak 48.000 euroko kostua izan du baina herritarrengandik 1800 euro inguru baino jaso ez dituztenez kreditua eskatu dute ibilgailua elgoibartarren zerbitzura jartzeko.

Anbulantzia honek beharrezko ekipamendu guztiak ditu eta Osakidetzaren larrialdi sarean sartuta dago. Hau da, inguruan gerta litezkeen beharrezko zerbitzuetan parte hartzen dute Elgoibarko Gurutze Gorrikoek. Honelako 3 anbulantzia baino ez daude Gipuzkoan.




*Eguneko Zentrora adineko pertsona ezinduak eraman eta ekartzeko erabiltzen dute egokitutako anbulantzia*

**Egokitutako anbulantzia**

Bestalde, Udalak egokitutako beste anbulantzia bat erosi du, baina honen erabilera ere Gurutze Goffikoen esku dago. Betetzen duen zerbitzu nagusia ezinduak batetik bestera eramatea da. Horretarako, gurbildun aulkiak altxatzeko igogailua du. Honela, Eguneko Zentrora adineko pertsonak eramaten dituzte goizero eta arratsaldean beraien etxera itzuli. Era berean, herriko ezinduak sendagilearengana eramateko, San Lazaro Egoitzako joan-etorri batzuetarako... ere erabiltzen da anbulantzia.

**Bi** anbulantziok komunikabideen aurrean erakutsi zituzten Gurutze Gorriko ordezkariek eta Gillermo Garate alkateak. Honen esanetan, "eskertzekoa da Gurutze Gorriko boluntarioek egiten duten lana. Izan ere, edozein larrialditarako beti daude prest, eta orain anbulantzia hauekin baldintza hobeak izango dituzte lanerako". Gainera, Mila Picaza Gurutze Gorriko Elgoibarko Presidenteak herritarrei gogorarazi nahi die laguntza eman nahi izanez gero kontua zabalik dagoela BBVAn.

Beraz, elgoibarko Gurutze Gorriak bi anbulantzia izango ditu hemendik aurrera: Anbulantzia medikalizatua batetik, eta igogailuarekin egokitutakoa bestea.

# Balkoien apainketa lehiaketa jarri dute martxan Debabarrenean

## Izena emateko epea ekainaren 14an amaituko da

Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Elkarteak, Debegesak, joan den ostiralean, hilaren 24an, jarri zuen martxan Debarroko I. Balkoien Apainketarako Lehiaketa. Zortzi herritan banatu zituzten informazio orriak eta baita Kimu Bat lorazaintza enpresaren laguntzaz 3.000 landare ere.



*Guztira 3.000 landare banatu zituzten Debabarreneko 8 herrietan.*

Kanpaina honen helburua eskualdeko kaleen itxura hobetzea da, horretarako etxeetako balkoiak loraz apaintzera bultzatu nahi dituzte herritarrak. Ondoren, herri bakoitzeko balkoirik apainena aukeratuko dute eta baita Debabarreneko onena ere.

Izena emateko azken eguna ekainaren I4a izango da eta irabazleen aukeraketa ekainaren 19 eta **21** bitartean egingo dute. Herri bakoitzeko irabazleek lorazaintzako produktuetan gastatzeko 100 euroko erosketa txartetak izango dituzte saritzat. Bailarako lehenak, berriz, asteburu bat pasatu aha1 izango du nekazalturismo etxe batean.

Aitzakia polita, beraz, etxeko balkoiak ahalik eta txukunen jarri eta herriari kanpo itxura polita emateko.

## Euskarai bizitzeko aukerak ugaritzeko eta hizkuntza berreskuratzeko plana jarriko du martxan Udalak



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailordetzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia jarriko du martxan udan. Plana joan den asteartean aurkeztu zuten Kultur Etxean. Elgoibartarrei euskaraz bizitzeko aukerak ugaritzea eta euskara maila pertsonal, sozial eta ofizialean berreskuratzea dira helburu nagusiak. Datozen hiru edo lau urteetan hizkuntzaren normalizazioa eskuratzen jarraitu nahi da plan honekin eta Elgoibarko Udalak eta herri aginteek, elkarte, talde eta herritarrei ere eskatuko die planari buruzko iritzia.

## GARE-EILT irratizaleen elkarteak 362 kontaktu lortu zituen 24 orduko lehiaketan

Joan den Iarunbatetik igandera bitartean GARE-EILT irratizaleen elkarteak 24 orduko lehiaketa egin zuen Karakaten. Propagazio gutxi izan zutenez, hau da, kontaktuak egiteko baldintza kaskarrak zirenez, 362 kontaktu baino ez zituzten lortu. EAEko beste irratizale batzuekin izan ziren kontaktu gehienak eta Avila, Almeria eta Santanderrekin bat egitea ere lortu zuten. Antolatzaileen esanetan azken urteetan behera egin du kontaktu kopuruak. Izan ere, gehien 1995ean lortu zituzten, 2700, hain zuzen ere. Bestalde, udazkenean Urbasa aldera egingo dute irteera, bertan kontaktu gehiago lortzeko asmoz. 10 urte dira GARE-EILT irratizaleen elkartea sortu zenetik eta lehenengo urtean izan ezik gainontzeko guztietan antolatu dute 24 orduko lehiaketa.






## Rosak zazpigarren postua lortu du Eurovisionen

# "Operacht Triunfo" bezalakoak bultzatzearen aldekoa al zara?



### EUGENIO CARO
25 urte, komertziala

Bai, ezezaguna dan jende gaztiari aurrera segitzeko aukeria emateko modua da. Hala ere, kantante ezagunek hasarratzeko arrazoia dakatela uste dot, eureri ez zieten gauzia hain errez ipini eta.



### GORANE SALABERRIA
17 urte, ikaslea

Ondo dao ezautzen ez dan jendia bultzatzeko programa mota hau itxia, baina publizitate gehixegi ematen diete. Rosan kasuan, oso gora eruan dabe eta goixan soltau, ze oin lortu daban postuakin asko bajauko da.



### ISABEL UNANUE
51 urte, ostalaria

Ez, neri ez jata gustatzen mota horretako programak ikustia. Badaoz beste gauza batzuk telebistarako eta haueri leku gehixegi ematen jakuela pentsatzen dot.



### ALBERTO ROORIGUEZ
42 urte, igeltseroa

Nik ez dut saioa jarraitu, baina ez zait gaizki iruditzen telebistan horrelakoak ikustea gustuko dutenei aukera hori eskaintzea.



### MATILDE JUBETE
72 urte, etxekoandrea

Bai, gazteek abesten badakite aukera polita da beraientzat. Gainera hain denbora gutxian hainbeste ikasi badute urtetan abeslari ezagunen parera helduko dira.



### JAVIER IZAGA
33 urte, komertziantea

Ez, guztiz kendu beharko lukete telebistatik, gehiegizkoa baita. Neska-mutil hauei jainkoak izango direla sinestarazi diete eta moda bat baino ez da. Zentzugabeko saioa dela iruditzen zait.

*Udaberriko menu bereziak* *eta aste henetarako menua*

Berakatz fresko eta urdaiezpiko nahasia entsaladan
edo
Espinaka eta izoidn ketu hojaldrea
Hegaluzea pmerradan
edo
Untxia kumino (comino) erara
Etzeko postrea eta kafea

Basarte Azal,f euro
Te(f. - Fax: 943 743 426
20870 Elothar

,I151112Tf
JATETXE A

..4''' OIERK1 IGOGAILUAK

Urtira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

c7 943 82 01 09 'j-'7 Faxa: 943 82 01 62
Indalezio Ojanguren 2, behea 0 20600 EIBAR

# Elgoibar Ikastolako 5. mailako neska-mutilak, esku pilotan txapeldun

Gipuzkoako Kutxak ( Gaztetxoen Elkarteak) antolaturiko VII. pilota jardunaldien lehen fasean, Eibarko Astelehena pilotalekuan klasifikatu ondoren, Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan, maiatzaren 25ean, beste 20 herrirekin batera jokatu zuten azken fasea. Bertan, txapeldun gelditu zirelarik Azpeiti, Donostia (Axular) eta Azkoitiren aurretik.



# Pilar Ikastetxeko nesken futbol taldea Gipuzkoako finalean



Eskolarteko kiroletan, Pilar ikastetxeko neskek Gipuzkoako Txapelketako finalerdiak jokatu zituzten Ofiatin. Antzuolari 2 eta 1 irabazita, finalera pasatu ziren. Donostian jokatu zuten fmaleko partida eta zorritxarrez, 0 eta 5 galdu zuten Zurriolaren aurka. Animo, hurrengoan lortuko duzue eta!

## Pil ... i ditu aste honetarako

Gau , ostirala. DBH 4. mailako ikasleen agurra-ospatu dute. 7:30ean hasita. Guraso. Zuzendari eta Ikasleen hitzaldiak izan dituzte. Ikasleek prestatutako otodza eta Iiiilla eta diplomen banaketa. Argazkia atera ondoren. luntxa in dute ikastetxeko pilotalekuan.

farroara txangoa

staIde, biharko. ekainak I. gurasoen txangoa antolatu du afarroa aldera. Bertizko Jauregia, Zugarramurdi eta Bidasoak ra bisitatuko dituzte.






muñumer

hly priameork ey iot

TIPOGRAFIAN eta OFFSETEAN ERA GUZTIETAKO INPRIMAKIAK

Santa Klara. 2ti bellea - Tel.: 943 74 42 92 - Faxa: 943 74 43 41

# Osasun txokuak

## MASAJ1STAK

**Victoria lraegi**
P.M. Urruzuno, 31 • Tel: **943 74 07 70**
Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

**Kemen** Belardenda
(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)
San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

**Surya** Belardenda
(Osasun naturalaren zure zentroa Elgoibarren. Informa zaitez)
San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

## OPTIKAK

**Ikus Optiko-optometrista**
San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri**
(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometrla)
San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

## ORTOPEDIAK

**Itziar Sarasketa**
San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

## PODOLOGOAK

**Ibiltzen**
Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**
Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

**Iñaki Rivero**
San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**
Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

**Oinberri**
Errosario kalea, 25 • Tel: **943 74 17 95**
Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30
Larunbatetan: 10:00-13:00

Gida honetan agertu nahi baduzu,
deitu 943 74 37 04ra

EDUARDO GARCIA (NATUROPATA)
LUCIA CASQUERO
KEMEN BELARDENDA



# ZER DA JATEN EZ DOGUNA?

Zer da jaten ez duguna?
Gizarte aurreratu baten bizitzeak abantailak adina arazo ekar diezazkiguke.
Gaur egungo nekazaritzak lurrak izan behar lituzkeen mineralak eta bakteriak desorekatzen ditu, ondorioz, itxuraz kalitatezkoak diren elikagaiek hainbat gabezia izan ditzakete.
Pestizidek eta kutsadurak organismoaren baliabideak ere hondatzen dituzte.
Honek guztiak osasun-arazoak dakartza.
Gaisotasun horiei aurre egiteko modurik onena produktu biologikoak kontsumitzea eta elikagai modura osagarri naturalak hartzea da.

## "Pestizidek eta kutsadurak organismoaren baliabideak hondatzen dituzte"

Magnesioa eta Hauen gabeziak gorabeherak sortzen ditu nerbio sisteman, azalean eta hezurretan. Magnesio kloruroa edo karbonatoa har daiteke, baita silizioan aberatsa den "Bambit tabashir" landarea ere.

Heste-flora: kontserbatzaileek, pestiziden hondakinak eta estresak aldatu egiten dute. Bere onera etortzeko sagarrak, yoghurt-ak eta bifidus kopuru altua duten "probiotiko"-en osagarriak hartzea komeni da.

cs• Gantz-azido asegabeak: Organismo osoari eragiten dio gabeziak, batez ere nerbio eta honnona sistemei eta odoleko gantz kopuruari. Oliba, linu eta borraja olioa zein onagra hartu dezakegu, beti ere, hotzean egindako lehen presiokoa behar du izan.

co. Fibra: Zahia gosariarekin har daiteke, baita linua ere, libratzeko ohiturak hartuz.

Lezitina: Fosfolipido asko dituenez, kolesterolari aurre egiteko egokia da.

ce• Garagar legamia: B bitaminak, fosforoa eta aminoazidoak ditu eta estretatutako pertsonentzat, ikasleentzat, kirolarientzat eta azaleko arazoak dituztenentzat komenigarria da.

••• Polena: Alergiarik izan ezean bitamina modura erabil daiteke. Oinarrizko aminoazidoak, bitaminak, mineralak, entzima, bioflabonoideak... ditu.
Osasuntsu egoten laguntzen diguten elikagai hauek guztiak eskaintzen dizkigu naturak, eta belardendetan aurki ditzakegu produktuok.

Osasunari buruzko kezkaren bat argitu nahi baduzu,
deitu BARRENeko 943 74 41 12ra

Ki BaRRen

# Euripean ospatu ziren Trinitate jaiak Mendarozabal auzoan

## Ekintza desberdinak anto!atu zituzten, eta jende ugari bildu zen Trinitate jaiak ospatzeko



Eguraldiak gehiegi lagundu ez zuen arren, jende ugari bildu zen iragan asteburuan Trinitate ermitan. Ekitaldi interesgarria prestatu dute aurtengoan antolatzaileek, eta oso ondo erantzun dute mendarotarrek. Kanpai hots artean hasi ziren festak larunbatean. Igandean txistularien kalejirak zabaldu zuen eguna, eta ondoren meza nagusia izan zen Trinitateko baselizan. Mendaroko abesbatzak kantaldia eskaini zuen, eta honen ostean, herri kirolak ikusteko aukera izan zuten. Aizkolari eta harrijasotzaileek sekulako ikuskizuna eskaini zuten. Astelehenean meza santua egon zen Trinitateko el zan. Ondoren, ikastolako umeek bertso saioa eskaini zuten. Gai desberdinetako bertsoak bota zituzten, eta giro polita izan zen. Laja eta Landakanda trikitilarien txanda etorri zen ondoren. Bertan zeuden guztiak dantzan jani zituzten, eta gero herri bazkaria izan zuten Toki-Alai jatetxean. Iluntzean urteroko bakailo jana Aizpe elkartean, eta festak amaitzeko Laja eta Ziolarrekin erromeria Trinitate enparantzan.

# Bazkideen eguna antolatu zuten "Lagun Betikoak" Egoitzan



Lagun **Betikoak** Egoitzako kideek, bazkideen eguna ospatu zuten maiatzaren 28an. Eguerdiko 12:00etan meza nagusia izan zuten Azpilgoetako elizan hildako bazkideen oroimenez, eta honen ostean, joku desberdinak antolatu zituzten Goilati frontoian. BoIo jokuan, igelaren ahoan fitxak sartzen eta itxulapikoak apurtzen trebetasun handia erakutsi zuten partaideek. Hasieran jende gutxi animatu bazen ere, poliki-poliki jubiIatu ugari bildu zen frontoian. Jokuak amaitu ostean, Lagun Betikoak Egoitzan bazkaria egin zuten. Hirugarren edizioa izan da aurtengoa, eta antolatzaileek esan digutenez, tradizioari eusteko asmoa daukate. Duela hiru urteko ideia izan zen. Lehenagoko presidenteak antolatu zuen, eta orain, nahiz eta bera ez egon, ohitura honekin jarraitzea erabaki dute. Manuel Loiolak esan digunez, "egun polita izaten da, eta jendea oso gustura etortzen da".

## Euskal Bizikleta Mendaron

Datorren ekainaren 8an Euskal Bizikleta Mendarora iritsiko da. Laugarren egunean, txirrindulariek sesio bikoitza izango dute: goizean tropela Aguraine-tik aterako da eta 97 kilometro egin ostean, Mendaron izango dute helmuga. Arratsaldean, berriz, Mendaro-Mendaro erlojuz kontrakoa izango dute. Etapa honek 21 kilometro izango ditu, Mendaron hasi eta Kalbario gaina pasatuz, berriro ere Mendaron bukatuko da. Ekitaldi honen aurrekontua 39.066 eurokoa izango da.

## GaragaMzako bidegurutzean Rotonda egingo dute

Irailean hasiko dita obrak, eta zazpi hilabeteren buruan amaitzeko helburua dute. Proiektu honen aurrekontua 721.21 5 eurokoa izango da. Urte asko daramatza Mendaroko Udalak proiektu hau lortu nahian, eta azkenik badirudi Diputazioak onartu egin duela. Puntu honetan istripu ugari gertatu izan da; eta, beraz, rotonda beni honekin arriskua gutxituko dela espero dute.

2002ko maialzaren 310/ X urieo/85. zkia

 **KiliBaRRen** Kolaboratzailea: Ainhoa Andonegi. Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua.

# Kill on averregional

## Bigarren buelta oso ona egin dute, baina ezin izan diote mallari eutsi

***Azken momentura arte mantendu dute ibcoropena, baina azkenean ezin izan diote mailari eutsi. Kilimon taldea 2, erregionai mailara jaitsi da, eta orain ez dakite zer gertatuko den taidearekin. Denboraldia gaizki hasi zuten mendorotarrek, eta ezin izan diote buelta eman. Zaiitasun ugari zituen taldeak zulotik ateratzeko: jendea falta zen taidean, entrenatzaileak alde egin zuen, eta Ospas Gain futbol zelaiaren egoera ere ez da futbolean jokatzeko egokiena. I-fala ere, entrenatzaile berria ekarri zuten, ekr hainbat jokalari berriro ere taldera ŕhuli ziren. Salbatzeko itxaropena piztu zen orduan. Taldea hobeto jokaizen hasi zen, partiduak irabazten, eta bigarren buelta benetan txukuna egin dute. Tamalez ez da nahikoa izon, eta datorren urtean gertatuko dena erabakitzeko dago oraindik.***

Sarritan entzuten da gaizki hasten dena, gaizki amaitzen dela, eta kasu honetan hori gertatu da. Kilimonek gaizki hasi zuen denboraldia, eta amaiera okenagoa izan da. Lehenengo buelta guztian 6 puntu bakarrik lortu zituzten, eta horri buelta ematea oso zaila da. Direktibako kideek esan digutenez, arazo ugari izan zituzten: "azken urteotan izan genuen entrenatzailea Elgoibarrera joan zen, eta aurtengoarekin ez genuen asmatu. Ez zegoen gustura, eta lehenengo buelta amaitu arretik alde egin zuen. Josu Juaristi azkoitiarra etorri zen ondoren, eta orduan hasi ziren gauzak hobetzen". Bigarren bueltan taldealc askoz hobeto jokatu du, azken partiduetan batez ere. Beraiek adierazi diguten bezala. "Hasieratik horrela jokatu izan bagendu, ez ginateke jaitsiko". 21 puntu lortu dituzte bigarren bueltan, baina ez dira salbazioa lortzeko nahikoak izan.



Mendaro herri txikia da, eta handitzen ari den arren, jende gutxi bizi da oraindik. Jendea falta da taldea osatzeko. Gainera, jokalariak ere adinean aurrera doaz, eta konpromiso desberdinak dituzte. Jendeak futbola laga egiten du eta atzetik ez dago postu horiek betetzeko jokalaririk. Garai batean baziren jubenil eta infantilen taldeak, baina azken urteotan ekipo bakarra zegoen. Entrenamentuetara ere, gero eta jende gutxiago agertzen zela esan digute, eta horrela gauzak ondo egitea oso zaila da. Honetaz gain, futbol zelai berria beharrezkoa dela adierazi digute. Ospas gain futbol zelaia euria egiten duenean oso gaizki jartzen da, eta ez dago bertan jokatzerik.

Datorren urteari begira, oraindik ez dakite zer gertatuko den. Lehenengo helburua taldea osatzea da, eta oso zaila ikusten dute. Direktibakoen hitzetan, "ez dago afiziorik, jendeari tiraka aritu gara aurten ere, eta datorren urtean zailagoa izango da". Egoera larria da. Kilimon talde historikoa desagertu egin daiteke, baina direktibatik esan digutenez, aurrera jarraitzeko ahalegin guztiak egingo dituzte.

### HISTORIA LABURR

1972. urtean sortu zen Kilimon K.E, Gurutzpe Kultur Elkartearen bahesarekin. Juan Jose Goikoetxea izan zen lehenengo presidentea. Txapelketa hartan 18 taldek hartu zuten parte, eta Kilimon 14. postuan sailkatu zen. 1974. urtean Ospas Gain futhol Zelaia egin zuten. eta bertan dihardu taldeak gaur egun ere. Hasiera batean talde nagusia bakarrik sortu zen, baina gero jubenil eta infantilen taldeak ere sortu ziren. 89/90 denboraldian desagertu zen infantilen taldea, eta 92/93an jubenilena. Ordutik a rrera, belaunaldi berrien falta da taldearen arazo larrienetako hat. 30 urte pasa dira dagoene ko, eta taldeak gorabehent ugari izan ditu. Entrenatzaile eta jokalari ugari pasatu dira bertatik. Kilimon l. erregional mailan aritu izan da" gehien bat, baina 87/88 denboraldian Preferente mailan aritu zen. Urte hau oso ona izan zen taldearentzat, eta 3. mailara igotzekotan ihili zen. Azkenean 4. postuan amaitu zuen denhoraldia. 93/94 txapelketan, 2. erregional mailara jaitsi ziren, baina urte berean igotzea lort zuten. Ordutik I . erregional mailan aritu dira. eta aurten berriz ere. kate

# ailara iaitsi da

## Elias Arriola, presidentea: "Gaur egungo gaztiak oso ondo ohituta daude eta ez dute Ospas Gainen jokatzerik nahi"



Urte asko daramatza Elias Arriolak Kilimon taldearen zuzendaritzan. Azkenaldian futbolak buruko min ugari ematen dizkiola, baina ahal den bitartean aurrera jarraituko duela adierazi digu: "Momentu honetan animoak ez daude ondo, baina taldea osatu eta aurrera jarraitzen saiatuko gara". Eliasek esan digunez, Mendaroko gazteek ez daukate futbolerako afiziorik. Gauza asko dituzte, eta Ospas Gainen jokatzea baino, nahiago omen dute beste gauza batzuk egitea. "Garai batean futbol zelai guztiak berdinak ziren, eta ez zegoen desberdintasunik. Gaur egun, ordea, belar artifizialeko zelai ugari egin dituzte hemen inguruan, eta jendeak nahiago du bertan jokatzea". Denbora asko daramate futbol zelai berria egin nahian, baina dirudienez, ez dago dirurik.

## Unai Kanala, kapitaina: "Taldean daukagun giroak balioko balu, txapeldunak izango ginateke"



14 urtekin hasi zen Unai Kanala Kilimonen jokatzen, eta datorren urtean jarraitzeko prest dago: "Taldea osatzen bada, dudarik gabe jarritu egingo dut, baina ez da erraza izango". Jokalarientzat denboraldi gogorra izan dela adierazi digu, baina beraien artean dagoen harremana sekulakoa dela gaineratu du: "Kilimonek daukan gauzarik onena lagun arteko harremana da. Aldagelako giroak balioko balu, txapeldunak izango ginateke". Berak esan digunez, kanpora joandako beste jokalari askok ere, Kilimonen bizi izandako garai bikainak gogoratzen dituzte. Datorren urteari begira ez daki zer gertatuko den. Bere hitzetan belaunaldi berrien falta arazo larria da: "Jokalariak adinean aurrera goaz, eta atzetik ez daukagu ordezkorik. Kanpoko jokalariak fitxatzea ere oso zaila da, beraz, datorren urtean ez dakigu taldea osatzea lortuko dugun".

## rpl IiirUIPTIif

| | | | |
|---|---|---|---|
| **2-2** | Kilimon | Aurrera Ondarroa | **3-1** |
| **5-2** | Zestoa | Kilimon | **5-2** |
| **0-3** | Kilimon | Intxurre | **4-0** |
| **7-0** | Segura | Kilimon | **1-1** |
| **1-4** | Kilimon | **Pedrusko** | **2-1** |
| **3-2** | **Bergara** | **Kilimon** | **4-2** |
| **0-2** | Kilimon | **Amaikak** Bat | **2-0** |
| **3-0** | Orioko | **Kilimon** | **2-2** |
| **3-3** | Kilimon | **Zumaiako** | **4-1** |
| **2-0** | **Mondragon** | **Kilimon** | **2-1** |
| **3-1** | **Elgoibar** | **Kilimon** | **6-0** |
| **3-2** | **Kilimon** | **Soraluze** | **2-0** |
| **6-0** | **Ilintxa** | **Kilimon** | **2-2** |
| **2-2** | **Kilimon** | **Gazteak** | **2-4** |
| | **Tolosaldea** | **kilimon** | **3-1** |

| TALDEA | Pt | | B | |
|---|---|---|---|---|
| 1. Amaikak Bat | **67** | **21** | 4 | **5** |
| 2. {lintxa | **63** | **19** | 6 | **5** |
| 3. Segura | **60** | **16** | **12** | **2** |
| 4. Pedrusko | **60** | **19** | **3** | **8** |
| 5. Zumaiako | **59** | **19** | **2** | **9** |
| 6. Orioko | **52** | **16** | **4** | **10** |
| 7. Modragon | **51** | **16** | **3** | **11** |
| 8. Tolosaldea | **47** | **13** | **8** | **9** |
| 9. Intxurre | **37** | **11** | **4** | **15** |
| 10. Elgoibar | **36** | **10** | **6** | **14** |
| 11. Zestoa | **28** | **8** | **4** | **18** |
| 12. Aurrera O. | **27** | **7** | **6** | **17** |
| 13. Soraluze | **27** | **7** | **6** | **17** |
| **14. Kilimon** | **27** | **7** | **6** | **17** |
| 15. Bergara | **19** | **5** | **4** | **21** |
| 16. Gazteak | **16** | **2** | **10** | **18** |



Hilabete honetako erretratu zaharra **Udaleko Artxibategiko arduradunek** laga digute. Trinitateetatik bueltan, egokia iruditu zaigu. Tanborrada egin zen Mendaron, baina ez ote zen izango San Sebastian egunean? Ez dakigu. Jakin ere ez dakigu zein urtetakoa den, ezta nor diren bertan agertzen diren herritarrak ere. Norbaitek ezagutuko al du hemen jazotakoa?


**BOUTIQUE DEL PAN**

**Enpanadak** **Enbutidoak**

**Baserriko ogia** **Bolleria**

San Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 v 943 74 33 92



**)NTURAK**

*PEDRO PEREZ BERISTAIN*

Xixilion, 2 . 3.soloa Ir 943 74 36 52 - 74 27 69

**KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK** - PINTAKETA

# Farmazia - okindegia

| EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|
| 31 Etxeberria | Etxeberria |
| (Santo Ana kalean) | |
| Etxeberria (Rosario | Fernandez |
| 2 Fernandez | Fernandez |
| 3 Yudego | Yudego |
| 4 Zabaleta | Zabaleta |
| 5 Etxeberria | Etxeberria |
| (Rosorio kalean) | |
| 6 Ibañez | Ibañez |

**FARMAZIAK**

**IBAÑEZ,** Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 **16 38**
**FERNANDEZ,**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 al 42
**ZABALETA,** Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 134
*eguerdiko 2ak arte

**OKINDEGIA**
2 igandea **Izagirre**

## Eusko re_____ EuskoTren gr fORI SAK

DONOSTIA-BILBO
Egunero
Donostiaaaras 5.45 06.45- 20.45
Elgoibar 07.02 08.02.. 22.02
"jaiegunetan 7 45ean hasiko dira eta orduero egongo

BILBO-DONOSTIA
Egunero
Bilbo 06:00 7.00... 20.00
Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
*jaiegunman SUGelan lusiko dira eta orduero egongo dira

MENDARO-ELGOIBAR
Egunero
Mendaro 07 50 08.50... 21.50

ELGOIBAR-MENDARO
Astegunetan
Elgoibar 07.25 08.25 10.25. 21.25

Jaiegunetan
Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

## PES,AUTOBUSAK

**LARUNBAT GAUA**

EEBAR-ONDARROA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Eibar | 00.30 | 02.30 | 04.30 | 06.30 |
| Elgoibar | 00.40 | 02.40 | 04.40 | 06.40 |
| Deba | •00.50 | 02.50 | 04.50 | 06.60 |
| Mutriku | 00 55 | 02.55 | 04.55 | 06.55 |
| Ondarroa | 01.05 | 03.05 | 05.05 | 07.05 |

ONDARROA-EBAR

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ondarroa | 23.30 | 01.30 | 03 30 | 05.30 |
| Mutriku | 23.40 | 01.40 | 03 -10 | 05.40 |
| Deba | 23.45 | 01.45 | 03.45 | 05.45 |
| Elgoibar | 23.55 | 01.55 | 03.55 | 05.55 |
| Eibar | 00.05 | 02.05 | 04.05 | 06.05 |

EIBAR-MUTALICU

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Eibar | 01.00 | 02.30 | 04.30 | 06.00 |
| Elgoibar | 01.10 | 02.40 | 04.40 | 06.10 |
| Deba | 01.20 | 02.50 | 04.50 | 06.20 |
| Mutriku | 01.25 | 02.55 | 04.55 | 06.25 |

MUTRIKU-E1BAR

